



MENDI IRTEEREN INFORMAZIOA INFORMACIÓN DE EXCURSIONES TXANTREA MENDI TALDEA



Laguntzen du
Colabora

txantreamenditaldea@gmail.com

<http://www.txantreamenditaldea.com>

<https://www.facebook.com/profile.php?id=100054594633792>

Orria z./ Hoja n. 524

2026/04/26

Travesía – Zeharkaldia Itzaltzu–Gartxot (Elkorreta)-Abodi (1532m)-Muskilda

Irteera ordua-Hora de salida: **Goizeko 8:00ak - 8:00 de la mañana**

Irteera lekua-Lugar de salida: https://maps.app.goo.gl/eyMXtZgaqGqWejYf7?g_st=ic San Cristobal kalea (Plaza Txantrea n° 11.)
(Parada bus junto a centro salud)

Zailtasuna - Dificultad: Zeharkaldi/igoera ertaina-Travesía/subida moderada

Iraupena-Duración aproximada: 5-6 ordu


Igoera-Desnivel: 860 m

Luzera-Distancia: 17,5 Km


Beharrezko materiala-Material obligatorio: Mendirako arropa, oinetakoak. Ropa y calzado de montaña.



Elkorreta (Gartxot) kobazuloa.



Muskildako ermita



Itzaltzu (Zaraitzu) izanen da gure ibilbidearen hasiera. Zaraitzu ibarrean murgilduko gara. Iratiko belardi berde eta baso ederren artean zabalduko da gure bidea. Hainbat ur-jauzi ikusteko parada izanen dugu bai eta Pirinioen ikuspegiak ere. Paraje hauetan bizi izan zen Gartxot bardoaren elezaharra gogora ekarriz, Elkorretako haitzulora ailegatuko gara. Ondoren Abodi mendiko tontorretara hurbilduko gara gure ibilbidean, eta zati batean hauek zeharkatu ondoren, Otsagabiako Muskilda ermitara jaitsiko gara.

Itzaltzu (Salazar) será el inicio de nuestro recorrido. Nos adentraremos en el valle de Salazar. Nuestro camino se extenderá entre verdes prados y hermosos bosques de Irati. Podremos ver varias cascadas así como en unos cuantos sitios buenas vistas al Pirineo. Recordando la leyenda del bardo Gartxot que vivió en estos parajes, llegaremos a la cueva de Elkorreta. Después nos acercaremos en nuestro recorrido a las cimas del monte Abodi, y tras recorrerlas en parte, bajaremos a la ermita de Muskilda, de Ochagavía.



Pirinioen ikuspegi ederrak eta ibilbidean aurkitzen ahal dugun artalde bat

Gartxotoren elezaharra. Konkistaren aitzineko konkista.

Kondaira hau, [Arturo Kanpion](#) XIX. mendeko idazle, euskaltzale, abokatu eta historialari nafarrak berreskuratu zuen 1917an “**El bardo de Itzalzu**” izeneko lanean. 1981. urtean berriz, Benito Lertxundi abeslariak kaleratutako “Altabizkar” diskan “[Itzaltzuko bardo](#)” abestiarekin euskal jende artean kondaira hau gehiago ezagutarazi zen. 2003. urtean Asisko Urmeneta marrazkilariak “Gartxot” komiki-liburua argitaratu zuen. 2011 urtean berriz “[Gartxot, konkista aitzineko konkista](#)” filma egin zen komiki-liburuan oinarrituta.

Gartxotek Itzaltzu inguruak bertsoz alaitzen zituen, baina, XII. mende hasieran, Orreagako fraide frantsesek haren seme **Mikelot** bahitu zuten. Haurraren ahots ederrak liluratuta, abade etxean nahi zuten Mikelot, eurentzat kanta zezan, baina Gartxotek ezin izan zuen hori jasan, eta semea Orreagatik ateratzea lortu zuen, ihesean. Zaraitzuko jaunak, ordea, biak atxilotzeko agindua eman zuen, eta, atzeman zituztenean, Gartxotek nahiago izan zuen semea beste behin bahitu baino bere eskuz hil. Sutara kondenatua izan zen, baina kondairak dionez, kondena haren ordainean, **Abodi mendiko Elkorretako haitzetako leizean** bizitzera kondenatu zuten. Usoek mokoaz gari aleak eramaten omen zizkioten gosez hil ez zedin.

Leyenda de Gartxot. La conquista previa a la conquista.

Esta leyenda fue recuperada en 1917 por el escritor, vascofilo, abogado e historiador navarro del siglo XIX [Arturo Campión](#) en su obra “**El bardo de Itzalzu**”. En 1981, en el disco “Altabizkar” publicado por el cantante Benito Lertxundi, con la canción “[Itzaltzuko bardo](#)” se dio a conocer más esta leyenda entre la gente de Euskal Herria. En 2003 el dibujante Asisko Urmeneta publicó el cómic “Gartxot”. En el 2011 y basado en este comic se hizo el film “[Gartxot, konkista aitzineko konkista](#)”

Gartxot amenizaba con versos los alrededores de Itzaltzu, pero a principios del siglo XII, los frailes franceses de Orreaga/Roncesvalles secuestraron a su hijo **Mikelot**. Fascinados por la hermosa voz del niño, querían a Mikelot en la abadía para que cantara para ellos, pero Gartxot no pudo soportarlo y consiguió sacar a su hijo de Orreaga, en fuga. El señor de Salazar, sin embargo, ordenó la detención de ambos y, al ser interceptados, Gartxot prefirió matar a su hijo por su propia mano a secuestrarlo una vez más. Fue condenado al fuego, pero según cuenta la leyenda, a cambio de aquella condena, fue condenado a vivir en la **cueva de las peñas de Elkorreta, en el monte Abodi**. Dicen que las palomas le llevaban granos de trigo con el pico para que no se muriera de hambre. 2

Itzaltzu eta Muskilda arteko bidea. Elkorretako haitzulotik eta Aboditik pasatuz.

* Aipatu den bezala **Gartxot** ibilbidearen zati bat egingen dugu, **Itzaltzu** herritik hasita.

Herritik, errepidez, Uztarrotze aldera kilometro bat inguru egingen dugu. Ezkerrean, aurkituko dugun borda baten ondoan, zutoin adierazle bat ikusiko dugu. Honek **Elkorreta** edo **Gartxoten ibilbidea** hasten dela erakutsiko digu. Baso zoragarri batean barneratuko gara haitzulo aldera igotzeko. Bertan pinuak, astigarrak, haritzak, ... aurkituko ditugu bai eta altura hartuz pagadi ikusgarri bat ere. Geroxeago **Krutxeako begiratokia** izanen dugu gure ondoan. Mendebaldeko Pirinioetako tontor garrantzitsuenetako asko handikiro agertuko zaizkigu. Bista hauekin gozatu ondoren, aurrera jarraitzen dugu eta **Petranberroa** erreka azaleratuko zaigu, Ripaldako ur-jauziarekin, eta haren ondorengo ur-jauzi txikiekin. **Moive** sakanean berriz **Saleras** erreka bere jauzi txikiarekin izanen dugu. **Elkorretako** haitzetatik oso gertu gaude eta bere oinarrian Gartxot bardoak bere azken egunak pasa zituen izen bereko haitzuloa aurkitzen dugu.

Atzera, pasatu dugun lepoa aldera, itzuli eta Abodi mendilerroko **Gaztanbidea** tontor aldera egingen dugu. Gandorretik jarraituko dugu **Abodi** gailurrerantz eta hemendik **Muskilda** alderako jaitsierari ekinen diogu.

Itzaltzu eta Muskilda arteko bidea. Elkorretako haitzulotik eta Aboditik pasatuz.

* Como se ha mencionado, realizaremos parte del **recorrido Gartxot**, empezando en **Itzaltzu**.

Desde el pueblo, por carretera, recorreremos cerca de un kilómetro en dirección a Uztárrotz. A la izquierda, junto a una borda que encontraremos, vemos un poste indicativo. Este nos mostrará que comienza la **ruta de Elkorreta o Gartxot**. Nos adentraremos en un bosque maravilloso para subir hacia la cueva. En el encontraremos pinos, arces, robles... y un espectacular hayedo en altura. Más tarde tendremos a nuestro lado el **mirador de Krutxea**. Muchos de los picos más importantes del Pirineo occidental se nos presentan solemnemente. Tras disfrutar de estas vistas, seguimos adelante y nos aflorará la **regata Petranberroa**, con la **cascada de Ripalda**, y las pequeñas cascadas que la siguen. En el **barranco de Moive** tendremos la **regata Saleras** con su pequeño salto. Estamos muy cerca de las **peñas de Elkorreta** y en su base encontramos la cueva del mismo nombre en la que el **bardo Gartxot** pasó sus últimos días.

Retrocedemos, hacia el collado que hemos pasado y nos dirigimos hacia la cima de **Gaztanbidea**, en la sierra de Abodi. Continuaremos por la cresta hacia la cima de **Abodi** y desde aquí emprenderemos el descenso hacia **Muskilda**.



Borda Xubri en nuestra bajada hacia Muskilda



Ur-jauzia Elkorretaren inguruetan